

#### 4. DIRU-ITURRIAK

##### Gure zerbitzuari bultzada bat eman ahal izateko, honako diru-iturriak behar dugu

- **Eusko jaurlaritza:** Eusko jaurlaritza hainbat programa aurkeztu ditu urteetan zehar gazte ekintzaileak irudikatzeko eta finantzatzeko. Programarik berriena "AURRERA 2024" du izena. Programa honen kide izateko hainbat baldintza bete behar dira.

AURRERA programak % 100eko bermea du Elkargi enpresaren aldetik, eta honako baldintza hauek betetzen ditu:

- Gutxieneko zenbatekoa (Eusko Jaurlaritzak ematen dituen gutxienezko diru-laguntzak): 50.000 euro
- Gehienezko zenbatekoa: 250.000 euro
- Interes-tasa: 12 hilabeteko euri-borra + % 1,25
- Finantzaketa epea: 7 urtera arte
- Gabealdia: 2 urte arte
- Kuotak: Hiru hilean behin, hiruhileko natural bakoitzaren amaieran

Prozesu korapilatsua da eusko jaurlaritzak dirua ematea enpresa berriei, hainbat baldintza bete behar baitira. Hasteko, merkataritzara gidatuta dagoen enpresa bat izan behar, baina kasu honetan, gure enpresak, baldintza hori betetzen du.

- **Europako Parlamentua:** Europar batasunak era guztietako proiektu eta programetarako finantzaketa eskaintzen du; horretarako, arau zorrotzak erabiltzen ditu eta finantzatutako dirua kontrolatzen du, dirua modu arduratsuan gastatzen dela bermatzeko. Horregatik, europar batasunak hainbat modu ditu sortzen ari diren proiektuetarako dirua finantzatzeko:
  - Laguntzak: Normalean, zure proiektuari buruzko ideiak aurrez aurre eskatzen dira proposamen deialdi batean.
  - Nazioko edo eskualdeko agintariak kudeatutako dirulaguntzak.
  - Maileguak, bermeak eta kapitala, EBren programak eta programak babesteko finantza-laguntza emateko modu gisa

Hasiera batean, zerbitzu honek mikroenpresa bat da, horregatik, Europako Parlamentuak 2 milioi euro finantzatzen ditu mikroenpresetan herrialde bakoitzeko, beraz, Espainiako gobernuak erabakitzen du nori finantzatzen dio diru hori.

- **Bankuak:** Bi banku aurkitu ditugu:
  1. **CAIXABANK:** Negozio-maileguak deitutako mailegua 50.000 €koa da, eta % 100eko finantzaketa da, baldin eta urtean 2.000.000 €-tik gorako fakturaziorik ez badute eta 9 langile baino gehiago ez badituzte. Interesa finkoa da, baina ez da

zehazten zenbatekoa den. Amortizazioa, hau da, lortutako mailegua itzuli behar denean, sei urte artekoa da, eta epe luzea ematen du.


2. **BBVA:** 50.000 €arte, enpresak urtean 5 milioi baino gutxiago fakturatzen baditu. 14 hilabetetik 7 urtera arte itzultzeko epea da ETE bazara. Interes-tasa finko eta pertsonalizatua da, eta hobari bat ematen dizute enpresa jasangarri bat bazara.

Gure kasuan hobe izango litzateke BBVA bankuaren mailegua hartzea, interesa epe luzeagoan itzultzeko aukera ematen baitigu, eta hobari bat eman ahal digute enpresa jasangarria izateagatik, zerbitzu jasangarriak ematen ditugulako. Bestalde, fakturazioaz hitz egiten, BBVAk ere komeniko litzauguke, diru-sarrera handiagoak izateko aukera ematen digulako, baldin eta CAIXAn 2 milioiekin ez digute mailegua emango, baina BBVA 5 milioiko mugaraino emango digutelako.

- **Espainiako Gobernuak:** Etqhez etxe lisatzea enpresa txiki bat martxan jartzean, estatuak edo administrazioek hainbat diru-laguntza eskaintzen dituzte. Hauek dira oinarrizko batzuk:
  1. **Enpresa berrientzako laguntzak:** Hasierako gastuak ordaintzeko (adibidez, ekipoak erosi edo enpresa erregistratu), 1.000 eta 5.000 euro artean jaso ditzakegu.
  2. **Digitalizazioa:** Web orri bat sortzeko edo zerbitzuak online sustatzeko 2.000 eta 6.000 euro arteko laguntzak eskuratu ditzakegu.
  3. **Zergen eta Gizarte Segurantzaren murrizketak:** Zergak gutxitu edo lehenengo hilabeteetan Gizarte Segurantzaren ordainketa murriztu dezakegu, urtean 1.000 euro inguru aurrezteko aukera izanik.
  4. **Langileak kontratatzea:** Langileak kontratatzen baditugu, diru-laguntza gehigarriak lor ditzakegu (1.000 eta 3.000 euro artean (bakoitzeko)).

Kopuru hauek gutxi gorabeherakoak dira, eta autonomia erkidegoaren edo eskualdearen arabera aldatu daitezke. Aholkularitza espezializatua bilatzea gomendatzen da, eskura dauden laguntzak ez galtzeko. Amaitzeko, Espainiako gobernuak oso zeregin garrantzitsua du Europako Parlamentuak emandako diru-laguntzen aukeraketan; izaten delako Europako Parlamentuak eskaintzen dituen laguntzen artean dirua sailkatzen duena, ondoren, dauden enpresa ekintzaileen artean banatzen du, Europako Parlamentuak ezarritako baldintzak betetzen dituztela ikusten du eta burokrasia saihesten du dirulaguntza horiek hartzaileari helderako.

## DIRU-ITURRIAK



Grafiko honen haztapena horrelakoa da uste dugulako bankuak funtsezko tresna direla, eta gure sarrera-iturri nagusia izango litzatekeela finantzaketa-iturri azkarrena delako, eta administrazio publikoekin tramite guztiak egiteak ez dakigulako zenbat eramango gaituen; hala ere, uste dugu denbora gutxiago dela bankuekin egin beharreko tramite horiek.

Bestalde, Eusko Jaurlaritzaren eta Espainiako gobernuaren laguntzak maila berean egongo lirateke (% 25); izan ere, azkenean, esan dudana bezala, laguntza horiek lortzeko prozesua zabalagoa izango litzateke, eta, gutxi gorabehera, gauza bera jasoko dugu bi aldeetatik. Egia da Eusko Jaurlaritzak diru gehien ematen duen entitatea dela, bankuek ematen dituztenak jaurlaritzaren gutxienezko kopurua baita, baina prozesua guztiz motelagoa izango da entitate publiko hauetan.

Azkenik, Europako Parlamentuaren laguntzak % 10 dira; izan ere, eta arrazoi hori oso erraza da, ez dira zuzenean iristen laguntzak, baizik eta Estatuako gobernuari ematen dizkiete, Estatuak banatzeko, hau da, Espainiako gobernuaren bigarren aukera bat izango litzateke, ez dizkigutelako zuzenean guri ematen, baizik eta gobernuari eman eta aurkezten diren beste proiektu batzuk aukeratzen, banatu behar dituzte.

Proiektuaren hasieran ordainketa garrantzitsua izango dugu, eta hau bankuena izango da, baina kasu honetan BBVArena, lehen azaldutako arrazoiengatik; hau da, diru azkarra delako bata gehien komeni zaigun bankua ere.